

Lur hartzen

Irati Majuelo

Nerea Balda idazleak argitaratutako lehen liburua da *Atzerrian*. Izenburuak diogen gisa, atzerrian kokatutako eleberririko lan bat aurkezten digu. Itzultzaile gazte bat du protagonista, Euskal Herriatik Londresera doana, bizi-helburutzat harturik erakunde prestigiotsu batean itzultzaile-lana lortzea. Atzerriaritze horren atzean, ordea, etxetik aldentzeko beharra eta askatasunaren bilaketa igar daitezke, liburuan zehar zenbait pasartek argituko dutenez. Hala ere, gogor borrokatutako lanpostua lortzeko ez dio hasierako poza baino eskainiko protagonistarari, eta parez pare egingo du topo egunerokoak eskaintzen duen hustasun sentsazioarekin, baita bakardadearen eta distantziaren dilemakin ere. Mosaiko baten moduko eleberria izanik, istorio ugari gurutzatzen dira, iraganeak zein orainaldikoak, protagonistaren

familiarekin zerikusia dutenak, zein atzerrian egindako lagunekin. Ahots narratibo desberdinek edukitzeak lagundu egiten dio Baldari mosaiko osoaren irudiari osotasun bat ematen, istorio bakoitzari enfoketaz gain, erritmoari eusteko ere balio baitio.



'Atzerrian'

Idazlea: Nerea Balda.
Argitaletxea: Pamiela.

Atzerriko distantzia, bakardadea eta giza harremanak bezalako gai garrantzitsuak heltzeko aukera ematen dio, eta ezin uka Baldak horiek lantzeko ambizioarik duenik. Nabari da liburua gai horiei buruzko ideia eta kezketatik abiatu duela. Izan ere, zenbaitetan gertakizunak hausnarketa horien aitzakian garatu direla esan daiteke, eta horrek tarteka eleberraren garapena oztopatzen duela esan nuke. Bestalde, eta kontraesanekoa izan litekeen arren, kontakizuna osatzeko oinarri izan baitira, azkenerako atzerriari buruzko gogoetak bigarren planoan geratzen direla esan liteke, zeharka baino ez direla ageri.

Atzerria gai garaikidea eta unibertuala izaki, liburuarren potentziala gaur egungo belaunaldiak atzerrian bizi dituzten kezka eta ezinegonei ahotso jartzean zego-elakoa nengoen. Eta horretarako asmoa egon badago, baina, gertakizun eta hausnarketen arteko oreka bat bilatu nahian, Baldak azken horiek oso esplizituki eta kontzentraturik adierazi ditu, hasierako potentziala apalduz. Erdialdetik aurrera protagonistak Sarah Bloom idazlearekiko garatzen duen obsesio abstrudok

pisu handia hartzen du kontaktuzunean, eta horrek protagonistaren benetako ezinegonak ezkutatzen ditu, ideia horiek azalartzen lagundu ordez.

Egia da, baina, eleberririko liburua honetan gauza interesgarriak topa daitezkeela, ahots narratibo ugarien uztarketa eta bigarren mailako pertsonaia interesgarriak, esaterako. Hizkuntzaren erabilera aberatsa eta hari buruzko kezka nabarmentzen dira batez ere, hizkuntzari, itzulpen-gintzari eta literaturari buruzko erreferentziak jositako baitago. Agian itzultzaileak darabilen irudia estereotipora gerturaten da zenbaitetan, baina igartzen da egileak ere hizkuntzaren bueltan egiten duela lan, eta, eleberrian diogen gisan, harekin jolastea maite duela.

Getxoko Udaleko Ramiro Pinilla saria irabazi zuen Baldak lan honekin, eta azpimarragarriak dira bere lehen liburuan erakusten dituen gogoak eta aniztasuna. Oraindik, baina, literatur munduan bi oinak lurrean sendo jartzeke dituela esan nuke, inguruari tamaina hartzen ari dela, atzerriko egindako joan-etorrien osteko lehen egunetan bezala, lur hartzen.



'Bilbo'

Idazlea: Lutxo Egia. **Ilustratzailea:** Asisko Urmeneta. **Argitaletxea:** Elkar.

Elkarren Arian irakurgai mailakatuena bildumako parte da Bilbori buruzko liburua, hiria bisitatzeko proposamen bat. Lutxo Egiaerenak dira testuak, eta Asisko Urmenetarenak ilustrazioak. Donostia, Baiona, Donibane Garazi, Gasteiz, Iruñea eta Maule-Lextarreko gidak ere aterako dituzte.



'Iritsi gara!'

Idazlea: Jasone Osoro. **Ilustratzailea:** Alai Zubimendi. **Argitaletxea:** Alai.

Goazena telesailaren bilduma ko lehen liburua da *Iritsi gara!* Basakabin dauden pertsonaia udalekuan ez daudenean zer bizitza duen kontatzen du. Segituan saldu da lehen edizioa, eta bidean da bigarrena. Bildumako bigarren liburua Durango-ko Azokarako aterako dute.



'Elkano, euskaldunak eta munduaren inguruko lehen itzulria'

Idazlea: Daniel Zulaika. **Argitaratzailea:** Mundubira 500 Elkano Fundazioa.

Nabigatzaileei eta bidaia antolatzaileei buruz nahiz herriak itsasoarekin izan duen loturari buruz bi urtez egindako ikerketaren emaitza da liburua. Daniel Zulaikak «beste era batera» hurreratu nahi izan du munduaren itzulria.

Arriskatu gehiago, faborez

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Hemezortzi gutun idatzi dizkio Ainarak Valentzian ikasten ari den Jone lagunari. Jonek erantzuten omen dio, Ainarak esaten duenez. Bidaia inizatiko baten kronika irakurriko dugula iradokitzen zaigu lehen gutunetik, aurreraxeagoko atal batean Che Guevararen gaztetako bidaiaren aipamenak indartzen duen promesa. Datarik agertzen ez badute ere, iraila eta Gabonak bitartean idatzitakoak direla ondorioztatzen da, gehienak Sopela eta Urduliz arteko Basaguren deritzon auzo asmatu batean amama zaintzen duen bitartean, base-rrian, amaren jaiotzetan.

Lehen gutunetik ezagutzen ditugu trama osatuko duten pertsonaia kasik guztiak, eta gainerakoak kontaketa hari abiatu ahala agertuko dira. Esaterako, diru eske kantuan aritzen den mutil begi-berde gitarra jotzailea. Ainarak pertsonaia apala da,



'Bizitza motor gainean'

Idazlea: Xabier Mendiguren. **Argitaletxea:** Elkar.

euskal estereotipo ohikoaren eredura egina: ausarta-bainaez-hainbeste, esanekoa, noblea... Bere buruaz, ordea, bestelako iritzia du. Adimen korapilatsua duela iruditzen zaio, beti filosofatzen eta buruari bueltak ematen aritzen dela, Jonei aitortzen dionez. Behin baino gehiagotan irakurriko dugu «ez dizut txapa sartu nahi» batekin desenkusatzeko.

Halako testuinguruan, irakurleak bi iturrietatik espero dezake plazera, pentsatzeko dut nik: izan liteke Ainarak ezusteko zirraragarriak bizitzea, haien bidez heldutasuna irabazi eta bizitzaren fase berri batera jauzi nola egiten duen ikusi-ikasi dezagun irakurleok; edota goza genezake Ainarak bere gutunetan prozarako abildade ezohikoa erakutsita, bai hausnarketan, bai ideiak papereratzeko moduan.

Baina prosalari arrunta da Ainarak. Amorrugarria ere bai, hausnartzen hasten den bakoitzean Jonei «ez dizut txapa sartu nahi» esanda, hain zuzen, interesgarria izan zitekeen huraxe moztzen duena: hausnarketa. Zer, zergatik eta nola sentitzen den aitortzeko ausardia

falta du, eta gutun aspergarri mortalak idazten ditu, arruntak. Ez du dirdirarik, ez adierazteko moduan, ezta esaten duen horretan ere.

Baina Ainarak ez du arriskurik bizitzen. Auzokoaren moto zaharrean Bizkaian eta Gipuzkoako kostaldean zehar ibiltzen da: Mundaka, Lekeitio, Ondarroa, Zumaia, Zarautz, Donostia. Gerdialdian herri bakoitzari buruzko topikoren bat edo beste aieratu, eta aurrera. Zero abentura. Egia hori, azken bi atalak emozioz beteak dira protagonistarentzat, baina irakurleak ez du emozio hori partekatzeko aukerarik, amaierarako gordetako ezusteko narratibo baten karian agertzen delako. Are gutxiago emozioak adierazteko Ainarak duen gaitasun eskasarekin.

Halakorik «benetan» bizitzea gertatuz gero, esperientzia gogoangarria izango da esne mamitan hazitako 18 urteko neskatu batentzat, baina literatur testuinguru batean oso motz gelditzen da. Finean, nerabe ameslari batek irudimenarekin jolasteko aitzakia ematen dute gutunok, egitera ausartu ez, eta Ainararen bidez eskapada bat egitearen zirraratxoaz gozatzeko.